



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2020ko APIRILAREN 28an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2020ko apirilaren 28an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Concepcion Soria Legua
Shrabani Aranzabe Pita
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga

Bere ezin etorria azaltzen du: Unai Sorarrain Urruzola eta Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

1. **Aurreko bilkurako aktan onespena.**
 - ✓ 2020ko urtarrilaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.
 - ✓ 2020ko otsailaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.
 - ✓ 2020ko martxoaren 10an egindako ez ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **2019 Ekitaldiko udal aurrekontu orokorraren likidazioaren berri ematea.**
5. **2020 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
6. **COVID-19a dela eta, 2020ko udal aurrekontuaren murrizketaren berri ematea.**
7. **Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuaren esleipena, hala bada.**
8. **T3T mendi maratoiaren VI. Edizioa bertan behera utzi dutenaren berri ematea, Oiargi Mendi Elkartea.**
9. **Beste batzuk.**
10. **Mozioak, erreguak eta galderak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Udalbatza honekin hasi aurretik udal batzarkide guztien partez Unai Sorarrain zinegotziari doluminak eman nahi dizkie, bere amonaren heriotzagatik.

LEHEN PUNTUA **AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA**

- 2020ko urtarrilaren 28ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2020ko otsailaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2020ko martxoaren 10eko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 06/2020tik 42/2020ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ez dira aurkezten.

LAUGARREN PUNTUA **2019 EKITALDIKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA**

Ondoren batzarkideei 2019 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2020/30 zenbakia duen eta 2020ko martxoaren 16an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

30/2020 DEKRETUA

Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Lehen.- Udal honen 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

| | | |
|--|-----------|------------|
| 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2019-12-31n: | | 163.043,55 |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2019-12-31n: | | 64.914,60 |
| Aurrekontuko zordunak : | 48.659,32 | |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak: | 16.255,28 | |
| - Aplikatu gabeko kobrantzak: | 0,00 | |
| 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2019-12-31n: | | 49.591,13 |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: | 17.669,80 | |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | 31.921,33 | |
| - Aplikatu gabeko ordainketak: | 0,00 | |
| 4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3): | | 178.367,02 |
| 5.- Saldo kobragaitzak: | | 0,00 |
| 6.- Gehiegizko finantzaketa lotua: | | 0,00 |
| 7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6): | | 178.367,02 |

AURREKONTUKO EMAITZA

| | |
|--|------------|
| 1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: | 67.848,29 |
| 2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: | 273,25 |
| 3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: | 49.059,73 |
| 4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: | 0,00 |
| 5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4): | 117.181,27 |

KREDITU GERAKINAK

| | |
|--|------------|
| 1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak: | 146.962,26 |
|--|------------|



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

| | |
|--|------------|
| 2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak: | 419.377,68 |
| 3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2): | 566.339,94 |

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipaturako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

BOSTGARREN PUNTUA

2020 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2020 urterako udal zergen hobari deialdia onestu zela, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinaren kasuetan eskatu daiteke, eta Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kasuan, famili ugaria izateagatik eta motorraren arabera eskatu daitezke.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2020ko otsailaren 1ean deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2020ko otsailaren 29-a izan zelarik.

Ikusirik, goian aipaturiko epean hemezortzi hobari eskaera egin direla, hauetatik, 11 eskaera famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik, ondasun higiezinaren gaineko zergan, eta 7 eskaera, famili ugaria izateagatik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan.

Ikusirik, hemezortzi eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.G.A. Jaunak egin duen 2020 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BIGARRENA: M.D.A.G. andreak egin duen 2020 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

hobaria.

HIRUGARRENA: I.Z. jaunak egin duen 2020 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

LAUGARRENA: I.U.U jaunak egin duen 2020 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BOSTGARRENA: J.M.G.U. jaunak egin duen 2020 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

SEIGARRENA: J.G. jaunak egin duen 2020 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

J.G. jaunak egin duen 2020 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

ZAZPIGARRENA: M.K.M.. andreak egin duen 2020 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

ZORTZIGARRENA: A.S.S. jaunak egin duen 2020 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

A.S.S. jaunak egin duen 2020 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

BEDERATZIGARRENA: A.M. jaunak egin duen 2020 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

HAMARGARRENA: I.A. jaunak egin duen 2020 urterako ondasun higiezin gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

I.A. jaunak egin duen 2020 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

HAMAHIRUGARRENA: A.E. jaunak egin duen 2020 urterako ondasun



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

A.E. jaunak egin duen 2020 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

HAMALAU GARRENA: N.B. andreak egin duen 2020 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

HAMABOST GARRENA: U.O. andreak egin duen 2020 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

HAMASEI GARRENA: G.G. jaunak egin duen 2020 urterako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, kuota osoaren % 50eko hobaria.

HAMAZAZPI GARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

SEI GARREN PUNTUA

COVID-19a DELA ETA, 2020KO UDAL AURREKONTUAREN MURRIZKETAREN BERRI EMATEA

Ikusirik COVID-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz, udal finantzaketarako foru funtsa %20-25 bitartean gutxituko dela jakinarazi duela Foru Aldundiak. Alkate-Lehendakari jaunak egoera honen aurrean Udal aurrekontuaren kontu sailak doitu egin ditu, kapituloka aurrekontua horrela gelditu delarik:

| SARRERAK | 501.655,57€ |
|---|--------------------|
| A) ERAGIKETA ARRUNTAK | |
| 1. Kap. Zuzeneko Zergak | 68.310,00 |
| 2. Kap. Zeharkako Zergak | 6.000,00 |
| 3. Kap. Tasak eta bestelako zergak | 54.315,00 |
| 4. Kap. Transferentzi arruntak | 261.265,00 |
| 5. Kap. Ondare Sarrerak | 6.110,00 |
| B) KAPITAL-ERAGIKETAK | |
| 6. Kap. Inbertsio errealak besterengan. | 0,00 |
| 7. Kap. Kapital Transferentziak | 105.655,57 |



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

| | |
|---------------------------|------|
| 8. Kap. Finantza aktikoak | 0,00 |
| 9. Kap. Finantza Pasiboak | 0,00 |

| GASTUAK | 558.235,40€ |
|---|--------------------|
| A) ERAGIKETA ARRUNTAK | |
| 1. Kap. Pertsonal gastuak | 221.110,50 |
| 2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz. | 154.647,40 |
| 3. Kap. Finantza gastuak | 20,00 |
| 4. Kap. Transferentzi arruntak | 83.324,51 |
| B) KAPITAL-ERAGIKETAK | |
| 6. Kap. Inbertsio errealak | 99.132,99 |
| 7. Kap. Kapital Transferentziak | 0,00 |
| 8. Kap. Finantza aktikoak | 0,00 |
| 9. Kap. Finantza pasiboak | 0,00 |

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRIAN DAUDEN ZENBAIT BERDEGUNE ETA PARKEEN MANTENU ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuak kontratu bidez esleitzeko beharrea agertu dela Alkizako udala, herri langilearen lan zama oso handia delako.

Lan hauek egiteko Iratze Lorezaintza S.L. enpresari aurrekontu bat eskatu zaio, kontratu txiki baten aurrean agertzen garelako.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Iratze Lorezaintza S.L. enpresari Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuak kontratatzeko onespena ematea, urte beteko kontratua izango da eta aurrekontua 3.405,60 euro direlarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BOSTGARRENA: Aipaturiko gastuak 2020 aurrekontuetako 1 0000.210.171.00.01 Kontu sailaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Iratze Lorezaintza S.L. enpresari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

T3T MENDI MARATOIAREN VI. EDIZIOA BERTAN BEHERA UTZI DUTENAREN BERRI EMATEA, OIARGI MENDI ELKARTEA

COVID19 gaitzaren osasun krisia dela eta, Oiargi Mendi Elkarteak jakinarazten du, ekainaren 14an ospatzeko asmoa zuten hiru lasterketak (T3T, T2T eta T1T) bertan behera utzi dituztela.

Batzarkideak honen berri jasotzen dutelarik.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

9.1. 2020 URTERAKO UDAL TASEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2020 urterako ura eta zabor tasen hobari eskaerak egiteko epea zabaldu zela otsailaren 1etik 29arte (biak barne).

Aipaturiko epean hiru eskaera aurkeztu ziren.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- C.C. -eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BIGARRENA.- A.P.P. -eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

HIRUGARRENA.- M.J.O.-eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

LAUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunei jakinaraztea.

HAMARGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 16.10 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAZKARIAK